recogida en las bases para la creación del puesto de Jefatura Técnica del Área de Desarrollo Económico, Empleo e Innovación no se sujeta a la legalidad. Por tanto, entiende que no queda otra alternativa que no sea la de cumplir con ese requerimiento y tenerlo en cuenta para que en el futuro estos procedimientos no se retrasen en exceso.

Zorionez, kasu honetan, egoera zuzendu egin ahal izan da, aldi baterako lanpostuan lanean ari den pertsonak betetzen dituelako baldintza berriak, baina hori horrela ez izatera, beste hondamendi bat izango zuten sailean.

Afortunadamente, en este caso la situación se ha podido subsanar porque la persona que ocupa temporalmente el puesto cumple con los nuevos requisitos, pero de haber sido así habrían estado avocados a un nuevo desastre en el Departamento.

Nolanahi ere, eta, bere taldearen ustez, udal egituran garrantzi handiagoa izan beharko lukeen sail bat izanik, eskatzen du hautaketa-prozesua lehenbailehen egitea eta sailaren egitura administrari bat sartuta osatzea —arloaren funtzionamendua indartuz—, zeren baliabiderik eta egiturarik gabe ezin baita ezer garatu.

No obstante, y siendo un área que al parecer de su grupo debería adquirir una mayor relevancia en la estructura municipal, urge a que el proceso selectivo se lleve a cabo lo antes posible y se complete la estructura del Departamento con la incorporación del Administrativo que apoye el funcionamiento del mismo, puesto que sin recursos ni estructura no existen posibilidades de desarrollo.

Ondorioz, iragarri du Eibarko EAJ-PNV udal taldeak horren alde bozkatuko duela.

En consecuencia, anuncia el voto favorable del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV.

**Aguirre Unceta andreak** ere, Arartekoaren errekerimendua ikusita,

La **Sra. Aguirre Unceta** también anuncia su voto favorable a la propuesta

aldeko botoa emango dio Lanpostuen Zerrenda aldatzeko proposamenari.

de modificación de la Relación de Puestos de Trabajo visto el requerimiento del Ararteko.

**Alkate-udalburu jaunak** azpimarratu du kontsentsu bat dagoela sail honen garrantziaren inguruan eta, horregatik, aurrekontuan diru-partida bat ezarri zaiola aberastasuna sortzeko helburua baitu enpresekin, trebakuntza-zentroekin eta eragile sozialekin lankidetzan arituz; beraz, xedea da herriaren egoera sozio-ekonomikoa hobetzea.

El **Sr. Alcalde-Presidente** destaca el consenso existente en torno a la importancia de este Departamento y, por ello, se le ha dotado presupuestariamente con la finalidad de crear riqueza colaborando con empresas, centros de formación y agentes sociales; se trata, pues, de conseguir mejorar la situación socio económica de la ciudad.

Gezurtatu egin du pertsonalik ez dagoenik, baina egia da kostatzen ari dela plantillari egonkortasuna ematea.

Desmiente que no exista personal aunque si es cierto que está costando dotar de estabilidad a la plantilla de este Departamento.

Azkenik, Euskal Herria Bildu udal taldeari eskatu dio, komenigarritzat jotzen badu, jakinaraz diezaiola pribatuan ea zer diren salaketa horiek, lanpostuen baldintza akademikoak Pertsonal saileko zuzendaritzak ezartzen ditu-eta.

Por último, solicita al grupo municipal de Euskal Herria Bildu que, si lo cree conveniente, le traslade en privado en qué consisten esas denuncias ya que la determinación de los requisitos académicos de los puestos de trabajo la realiza la jefatura del Departamento de Personal.

Kontuan hartuta 2018ko abenduaren 19ko Langileria Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Personal de 19 de diciembre de 2018.

Arartekoak bidali duen errekerimenduaren arabera (ERREF: 949/2018/QC), plaza honetan graduondoko bat eskatzea ez zaiolako irizten legezkotasunari lotutakoa denik.

De acuerdo con el requerimiento recibido por parte del Ararteko (REF 949/2018/QC), que no considera sujeto a la legalidad requerir un postgrado en esta plaza.

Osoko Bilkurak, aho batez, ondoko erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Lehena:** Ekonomia Garapena, Enplegua eta Berrikuntza Arloko arduradun teknikoaren lanpostuaren "Titulazioa" ataletik kentzea “Enpresa-kudeaketa eta –berrikuntzaren arloarekin lotutako graduondokoa" eta baita “diploma”ren aipamena ere.

**Primero:** Suprimir del apartado de “titulación” del puesto de Jefatura Técnica del Área de Desarrollo Económico, Empleo e Innovación la exigencia de un “Postgrado relacionado con el área de Innovación Gestión empresarial” y la mención a “diplomatura”.

**Bigarrena:** LZren aldaketa hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

**Segundo:** Enviar esta modificación de la RPT al Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**Hirugarrena:** Udal osoko bilkurak hartzen duen erabakiaren ziurtagiria Arartekoari bidaltzea.

**Tercero:** Enviar certificación del acuerdo de pleno correspondiente al Ararteko.

**7. EIBARKO EMAKUMEEN MUGIMENDUAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ANDRETXEKO LOKALAREN KOKAPENARI BURUZKOA.**

**7. MOCIÓN PRESENTADA POR EL MOVIMIENTO DE MUJERES DE EIBAR SOBRE CAMBIO DE**

**UBICACIÓN DEL LOCAL DE ANDRETXEA.**

**Alkate-udalburu jaunak** esan du mozioak oinarrian konpromisoa eskatzen duela Andretxea lekuz aldatzeko Astelena frontoiaren aurrealdera. Horren harira, azaldu du inplikatutako kolektiboei zein udal taldeei igorri diela idazkari jaunaren txostena, zeinak jasotzen duen kokapen berria alkatetza-presidentziaren eskumena dela, baina, hala ere, berak ez du inolako erabakirik hartuko Udalbatza honen gehiengoaren babesik izan gabe.

El **Sr. Alcalde-Presidente** afirma que la moción básicamente solicita el compromiso para trasladar Andretxea a la parte delantera del frontón Astelena. A este respecto, da cuenta que ha remitido a los colectivos implicados así como a los grupos municipales el informe del Sr. Secretario en el que concluye que la fijación de esa nueva ubicación es competencia de la Alcaldía-Presidencia pero que, no obstante, no adoptará ninguna decisión sin contar con el respaldo mayoritario de este Pleno.

**Lamarain Cobo andreak** adierazi du bere taldeak ere bat egiten duela Eibarko emakumeen mugimenduarekin, Astelena frontoia lekurik egokiena delako Andretxea birkokatzeko.

La **Sra. Lamarain Cobo** expresa la coincidencia de su grupo con la petición del movimiento de mujeres de Eibar ya que consideran que el frontón Astelena es el lugar adecuado para reubicar Andretxea.

Bere ustez, ez da beharrezkoa aipatzea mugimendu feministak Eibarren duen garrantzia eta herriari egiten dion ekarpena; horren erakusgarri, martxoaren 8ko greba, eta baita egunez egunekoa ere.

Entiende que no es necesario mencionar la importancia del movimiento feminista de Eibar y su aportación a la ciudad, tal y como pudo comprobarse en la huelga del 8 de marzo pero también en el día a día.

Positibotzat jo du Andretxearen sorrera duela 15 urte, han biltzen diren emakumeei aukera eman dielako

Considera positiva la creación de Andretxea hace 15 años porque ha permitido a las mujeres que allí se reúnen

"konspiratzeko" eta dinamika ugari sortzeko.

Zorionez, egungo espazioa txiki geratu da, baina, tamalez, ez dauka behar adinako bisibilitaterik eta pertsona askori ez zaie erraza egiten hara joatea.

Jarraitu du azpimarratzen mugimendu feministaren garrantzia eta Andretxeak zerbitzu berriak eskaintzeko duen hazteko beharra, gaur egungo kokalekuan ezinezkoa dena. Zentzu horretan, Emakumeen Mahaiak erabaki du Astelena frontoia dela kokalekurik egokiena.

Bestalde, aspaldi ez dela, Bilkura honetan emakumeen ahalduntzea eztabaidatu zen, oso kontu garrantzitsua bere taldearen ustez bidegabekeriei eta desberdintasunak dituen gizarte bati aurre egiteko. Hala, ahalduntze horri laguntzeko erantzukizun politikoak dituztenek egin dezaketen onena zera da: emakumeek hartzen dituzten erabakiak errespetatu eta aurrera ateratzen ahalbidetzea.

Testuinguru horretan, Eibarko emakumeek erabaki dute Astelena frontoiak betetzen dituela Andretxea

“conspirar” para combatir el machismo y generar múltiples dinámicas.

Afortunadamente, el espacio actual se ha quedado pequeño pero, al mismo tiempo, lamentablemente, no cuenta con la visibilidad suficiente al tiempo que a muchas personas no les resulta fácil llegar hasta allí.

Continúa su intervención destacando la relevancia que ha adquirido el movimiento feminista y la necesidad de crecer que presenta Andretxea para ofrecer nuevos servicios, lo que resulta imposible en su actual ubicación. En este sentido, la Mesa de Mujeres ha concluido que el frontón Astelena es el mejor emplazamiento.

Por otra parte, no hace mucho tiempo que en este Pleno se debatió sobre el empoderamiento de las mujeres, cuestión que su grupo considera de suma importancia para hacer frente a las injusticias y a una sociedad desigual. Así, para favorecer ese empoderamiento lo mejor que pueden hacer quienes ostentan responsabilidades públicas es respetar las decisiones que adopten las mujeres y ayudar para sacarlas adelante.

En este contexto, las mujeres de Eibar han decidido que el frontón Astelena cumple los requisitos para ubicar Andretxea, a lo que habría que

kokatzeko baldintzak; horri gehitu beharko litzaioke eraikin publikoa dela aspalditik.

añadir que, desde hace tiempo, se trata de un edificio público.

Baina, Euskal Herria Bildu udal taldearentzat eraikin horrek sinbolismo handia dauka: Astelena frontoia, esku-pilotaren katedral gisa, nagusiki gizonen espazio bat izan da orain arte, eta iaz emakumeen pilotaren finala jokatu zen bertan; hortaz, zer hoberik frontoiaren aurrealdean Andretxea kokatzea baino.

Pero, para el grupo municipal de Euskal Herria Bildu este edificio posee un fuerte simbolismo: el frontón Astelena, como catedral de la pelota mano, hasta ahora ha sido principalmente un espacio masculino y ya el pasado año se celebró la final femenina de pelota, en consecuencia, qué mejor opción que situar en su parte delantera Andretxea.

Horregatik guztiagatik bere taldeak babesa emango dio mozioari.

Por todo ello, su grupo apoyará esta moción.

**Mendicute Rodríguez jaunak** gogorarazi du eztabaida honen xede den mozioaren proposamena aspalditik datorren aldarrikapen bat dela; are gehiago, bere taldeak azken udal hauteskundeetan konpromisoa adierazi zuen Andretxe berri bat martxan jartzeko, bai eta hura dinamizatzeko pertsona bat kontratatzeko ere. Proposamen horrek premia bati erantzuten zion, gaur egun nabarmena dena, eta Andretxea Astelena frontoira eramateko eskaeran zehazten dena.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** recuerda que la propuesta contenida en la moción objeto del presente debate es una reivindicación que viene de tiempo atrás; incluso su grupo se presentó a las últimas elecciones locales con el compromiso de poner en marcha una nueva Andretxea, así como contratar a una persona para que la dinamizara. Esa propuesta respondía a la necesidad que hoy es evidente y que se concreta en la petición de trasladar Andretxea a la parte delantera del frontón Astelena.

Aitortzen du orain arte egindako lana eta, horregatik, bere taldeak ez du eragozpenik jarriko proposamen hori gauzatzeko, baina zalantza batzuk planteatzen dituzte, eta Emakumearen

Reconoce el trabajo realizado hasta el momento y, por esta razón, su grupo no va a representar un obstáculo en la materialización de esa propuesta, aunque plantean una serie de

Mahaian ere planteatu zituzten. Hala, zalantza egiten du Andretxearen kokapenari buruz, ez baita ez soluzio azkarrena ezta behin betikoena era, eta ez du hazteko aukerarik ematen etorkizunera begira. Halaber, uste du teknikoki beste aukera batzuk egon daitezkeela zerbitzu horri ikusgarritasun gehiago emateko. Laburbilduz, kontua da bide motzagoa ibiltzea helmuga hobe batera iristeko.

interrogantes, tal y como ya han realizado en la Mesa de la Mujer. Así, duda de que ésta sea la mejor ubicación para Andretxea, ya que no es la solución ni más rápida ni definitiva y no ofrece las capacidades de crecimiento para el futuro. Del mismo modo, cree que técnicamente pueden existir otras opciones que ofrezcan mayor visibilidad a ese servicio. En definitiva, se trata de recorrer un camino más corto que nos conduzca a un mejor destino.

Bere iritziz, mozioaren alderdirik nabarmenena zera da, exijitzea *“udal talde guztiei benetako berdintasunarekin konpromiso argia izan dezaten, eta horretarako Andretxea ezinbesteko tresna bat da”;* hortaz, Eibarko EAJ-PNV udal taldea tresnarekin ados ez egoteak ez du esan nahi helburuarekin ados ez dagoenik eta, ondorioz, ez dute inolako ekintzarik egingo hori eragozteko.

En su opinión, el aspecto más destacable de la moción es la exigencia del *“compromiso inequívoco de todos los grupos municipales con la igualdad real, para lo cual Andretexea es una herramienta imprescindible”*, por lo que el hecho de que el grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV no esté de acuerdo con la herramienta no significa que no lo esté con el fin que persigue y, en consecuencia, no realizarán ninguna acción que lo impida.

Hurrengo udal hauteskundeen ondoren Udalbatza berri batek hartu beharko ditu erabakiak, eta hitz ematen du bere taldeak alkatetza lortzen badu ez duela inolako erabakirik hartuko Emakumearen Mahaiaren eta udal taldeen irizpidearen aurka. Edonola ere, ez litzateke zintzoa izango bere proposamena beste bat dela esateke uztea, baina gaur

Después de las próximas elecciones municipales una nueva Corporación deberá adoptar una serie de decisiones y se compromete a que, si su grupo ostenta la Alcaldía, no tomará ninguna decisión en contra del criterio de la Mesa de la Mujer y de los grupos municipales. Todo ello no obsta para que exprese que no sería honesto reconocer

planteatutakoa aurrera atera dadin eragozteke Hortaz, Eibarko EAJ-PNV udal taldea abstenitu egingo da.

que su propuesta es otra, pero sin que se impida que la que hoy se plantea salga adelante. Por tanto, el grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV se abstendrá.

**Aguirre Unceta andreak** bat egin du Andretxea kokatzeko proposamen alternatiboarekin: Torrekuako behe batean, 468 m2-ko azalerarekin eta 381 m2-ko terraza batekin. Bere iritziz, kokaleku horrek aukera emango luke haurtzaindegi bat egokitzeko eta askoz ere diskretoagoa izango litzateke.

La **Sra. Aguirre Unceta** expresa su coincidencia con la propuesta alternativa para ubicar Andretxea, que sería en un bajo de Torrekua, puesto que se dispondría de una superficie de 468 $m^2$ además de una terraza de 381 $m^2$. A su entender, esta otra ubicación permitiría habilitar una guardería y resulta mucho más discreta.

Dena den, defendatu du halako erabakiak herritarren parte hartzearen fruitu izan behar direla eta, ondorioz, onartzen du planteatzen den kokaleku berria.

De todas formas, defiende que este tipo de decisiones deben ser fruto de la participación ciudadana y, en consecuencia, acepta la nueva ubicación que se plantea.

**Alkate-udalburu jaunak** gogorarazi du gobernu-taldeak bi konpromiso zituela gai honekin lotuak: Andretxeko dinamizatzailearen lanaldia luzatzea eta Andretxeko espazioa handitzea; horrek lekuz aldatzera behartzen du.

El **Sr. Alcalde-Presidente** recuerda que el equipo de gobierno tenía dos compromisos en relación con este asunto: ampliar la jornada laboral de la Dinamizadora de Andretxea así como ampliar su espacio, lo que obliga a su traslado.

Zehaztu du kokaleku berria ez dela udalaren erabaki bat baizik eta inplikatutako eragileen prozesu parte-hartzaile baten emaitza; era berean, lekua egokia iruditzen zaio, hirigintzaren

Puntualiza que la nueva ubicación no es una decisión municipal sino que es el resultado de un proceso participativo de las agentes implicadas, a la par que la considera adecuada ya que

ikuspegitik posible delako eraikina zerbitzu publikoetarako erabiltzea, batez ere eraikina eraberritu eta indartu ondoren.

Nahiz eta prozesua motela izaten ari den, mugimendu feminista ziur egon daiteke lanak aurrera doazela, eta iragarri du Udalen Finantzaketarako Foru Fondoaren 700.000 aurreikuspeneko superabita espazio berriaren obretarako eta ekipamendurako erabiliko dela.

**Mendicute Rodríguez jaunak** argitu du bere taldeak mugimendu feministari igorri dion proposamena Torrekua eraikinaren erabilera integrala dela, eta aurten bertan erabil litekeela, lokalaren egoera eta dagoen aurrekontu-ahalmena ikusita. Astelena frontoiaren kasuan, oraindik ezin da jakin noiz egongo litzatekeen martxan, artean ez dituztelako egin egitura indartzeko obrak eta, geroago, barrualdea eraberritzeko proiektua idatzi eta obrak exekutatu beharko liratekeelako. Hortaz, nekez inauguratuko da Andretxe berria aurten; Torrekua eraikinak, aldiz, elkarteentzako bilera-gelak ditu eta baita espazio diafano bat ere. Hitz batean, hauxe da bere proposamena; bestalde, harridura adierazi du alkate-udalburu jaunak gaiarekiko erakutsi duen ezagutza faltagatik.

urbanísticamente es posible el uso del edificio para servicios públicos, sobre todo una vez concluya su rehabilitación y reforzamiento.

A pesar de que el proceso está siendo lento, se trabaja sobre seguro para tranquilidad del movimiento feminista y anuncia que la previsión de 700.000 euros de superávit del Fondo Foral de Financiación se dedique a las obras y equipamiento de ese nuevo espacio.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** aclara que la propuesta que su grupo ha trasladado al movimiento feminista es la utilización integral del edificio Torrekua que podría utilizarse este mismo año dado su estado y capacidad presupuestaria. En el caso del frontón Astelena, se desconoce cuándo entraría en funcionamiento porque aún se están ejecutando las obras de refuerzo de la estructura y, posteriormente, habría que redactar el proyecto de rehabilitación del interior y ejecutar las obras correspondientes. Por tanto, difícilmente podrá inaugurarse la nueva Andretxea en el presente año; en cambio, el edificio de Torrekua dispone de salas de reuniones para las diferentes asociaciones así como un espacio diáfano. En definitiva, esta es su propuesta y muestra su sorpresa por

el desconocimiento al respecto expresado por el Sr. Alcalde-Presidente.

**Alkate-udalburu jaunak** zehaztu du ezagutzen zuela Eibarko EAJ-PNV udal taldearen proposamena, baina talde horren bozeramaleak lehen interbentzioan ez duenez Torrekua eraikina zehazki aipatu, ulertu du beste proposamen bat zegoela.

El **Sr. Alcalde-Presidente** precisa que conocía la propuesta del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV pero que, como su portavoz no se ha referido en concreto al edificio de Torrekua en su primera intervención, ha entendido que existía otra distinta.

**Mendicute Rodríguez jaunak** zehaztu du Andretxearen kokapen berriaren erabakia alkatetza-presidentziaren eskumena izanik, bera balitz ez lukeela inoiz Emakumearen Mahaiaren edo Udalbatza honen gehiengoaren iritziaren aurka egingo.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** puntualiza que, al ser competencia de la Alcaldía-Presidencia la decisión sobre la nueva ubicación de Andretxea, en su caso nunca iría en contra del parecer de la Mesa de la Mujer ni de la mayoría de este Pleno.

**Alkate-udalburu jaunak** zehaztu du bozketara eramango den proposamena mugimendu feministak proposatutakoa dela eta egia dela beste alternatiba batzuk ere bazeudela mahai gainean, hala nola Torrekua eraikina edo Bittor Sarasketa epaitegi zaharrak ere.

El **Sr. Alcalde-Presidente** concreta que la propuesta que se somete a votación es la planteada por el movimiento feminista y que es cierto que existían otras alternativas sobre la mesa como la del edificio Torrekua o la de los antiguos juzgados de Bittor Sarasketa.

Eibarko emakumeen mugimenduak Andretxearen lokala tokiz aldatzeko aurkeztu duen mozioa bozkatuta, Udal Osoko bilkurak honako mozio gay onartzea erabaki du, aldeko hamalau botorekin (PSE-EE-PSOE eta Euskal Herria Bildu), eta sei abstentziorekin (EAJ-PNV eta Irabazi):

Sometida a votación la moción presentada por el movimiento de mujeres de Eibar sobre cambio de ubicación del local de Andretxea, el Pleno de la Corporación, con catorce votos a favor (PSE-EE-PSOE y Euskal Herria Bildu) y seis abstenciones (EAJ-PNV e Irabazi), acuerda aprobar la siguiente Moción:

“Eibarko emakumeen mugimenduak 25 urte daramatza gure udalerrian berdintasunaren alde lanean. Honi esker, duela 15 urte Andretxea, gure emakumeen etxea, zabaltzea lortu zen, gaur egun dagoen leku berean. Hala ere, urteak aurrera joan ahala, lokalak ez ditu ezibestekoak diren beharrak asetzen:

- Espazioa ez da nahikoa. Zorionez, berdintasunaren alde lan egiten duen mugimenduaren hazkundea hanida izanda eta, beraz, Andretxea txiki geldintzen da dauden beharrei erantzuteko.

- Lokalaren eskuragarritasuna ez da egokia. Baztertua eta ikusgarritasunik gabeko leku batean kokatuta dago. Honez gain, lekuak berak dituen oztopo

“El movimiento de mujeres de Eibar lleva más de 25 años trabajando a favor de la igualdad en nuestro municipio. Gracias a esto, hace 15 años se consiguió que Andretxea, nuestra casa de las mujeres, abriese sus puertas en el mismo local en el que se encuentra actualmente. Con el paso de los años, el local no cubre las necesidades de la localidad:

- El espacio es insuficiente. Afortunadamente el movimiento que trabaja a favor de la igualdad ha crecido tanto que el espacio que ofrece Andretxea no alcanza para responder a sus necesidades.
- La accesibilidad no es la apropiada. Es un lugar apartado, sin ninguna visibilidad y con demasiadas barreras arquitectónicas que impiden el

arkitektonikoek, aniztasun funtzionala duten banakoen sarbidea eragozten du.

- Egungo etxeak dituen ezaugarriek, berdintasunaren alorrean dauden premiak asetzeko beharrezkoak diren zerbitzu berrien eskaintza ezinezko egiten dute.

Eskakizun eta behar hauen aurrean, orain dela 4 urte Udaletxeko indar politiko desberdinei eskaera bat egin zitzaien; eta nahiz eta ahozko akordio bat egon, hau ez zen hitz emandako espazio berrian gauzatzera iritsi. Andretxea berria Isasi kalea 11-n egoteko egindako hitzarmena berehala formalizatzea eta honekin batera, proiektua burutzeko beharrezko prozesu administratiboak martxan jartzea exijitzen dugu.

Gainera, duela bi urte, Eibarko Andretxeak bete beharko lituzkeen baldintzen azterketa bat burutu zela gogorarazi nahi dugu, baldintza hauek zehazten dituen txoeten tekniko bat burutzea ahalbidetuz. Beste gauza askoren artean, lokakak 400 metro karratu erabilgarri eduki beharko ditu; baita egokitutako sarbide bat ere.

acceso a personas con diversidad funcional.

- Las características de la actual casa dificultan o impiden la oferta de nuevos servicios para satisfacer las necesidades existentes en materia de igualdad.

Ante estas necesidades y demandas, hace cuatro años se hizo una petición a las diferentes fuerzas políticas del Ayuntamiento, y aunque hubo acuerdos verbales, no han llegado a materializarse en un nuevo espacio. Exigimos que el acuerdo al que se llegó para que la nueva Andretxea estuviese en Isasi kalea 11 (el actual edificio en obras colindante con el frontón Astelena), se formalice de manera inmediata y se pongan en marcha los procesos administrativos pertinentes para la realización del proyecto.

Recordar, además, que hace ya dos años, se hizo un estudio de las necesidades de una nueva Andretxea en Eibar, gracias al cual se ha realizado un informe técnico en el que se detallan las condiciones que debe cumplir. Entre muchas otras cosas tiene que tener un mínimo de 400 metros cuadrados útiles y un acceso debidamente acondicionado, condiciones con las que cumple el local anteriormente mencionado.

Honenbestez, Eibarko indar politiko guztiek berdintasun erreal batekiko konpromiso argia erakuts dezaten eskatzen dugu; Andretxea honen lorpenerako ezinbesteko tresna dela kontsideratzen baitugu.”

En conclusión, solicitamos el compromiso inequívoco de todas las fuerzas políticas de Eibar con la igualdad real, para cuya consecución Andretxea es una herramienta imprescindible.”

**8. EIBARKO EAJ-PNV UDAL TALDEAREN MOZIOA, GUARDIA ZIBILAREN KUARTELAK OKUPATUTAKO ESPAZIOA LIBRE UZTEARI BURUZKOA.**

**8. MOCIÓN PRESENTADA POR EIBARKO EAJ-PNV RELATIVA A LA LIBERACIÓN DEL ESPACIO OCUPADO POR EL CUARTEL DE LA GUARDIA CIVIL.**

**Mendicute Rodriguez jaunak** adierazi du proposamena hau ez dela berria agintaldi honetan; eta, bere ustez, Espainiako Gobernuan dagoen partidua dagoela, lan egin behar da espazio hori Eibarko herriak berreskura dezan.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** señala que esta no es una propuesta novedosa en este mandato y cree que, independientemente del partido que dirija el Gobierno de España, se debe trabajar para recuperar ese espacio para el pueblo de Eibar.

Bere taldean ez dute ulertzen, egungo testuinguru politikoan, Guardia Zibilaren kuartelak Egigurentarren leku hori okupatzea, zeren eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Estatutua eta Espainiako Konstituzioa onartu zirenetik 40 urte igaro ondoren, Estatuko Segurtasun Indarrek honezkero joanda egon beharko zuteken.

Desde su grupo no entienden que, en el contexto político actual, el cuartel de la Guardia Civil ocupe el espacio de Egigurentarren, puesto que, después de transcurridos 40 años desde la aprobación del Estatuto de Autonomía del País Vasco y la Constitución Española, debería haberse producido el repliegue de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado.

Mozioaren helburua da 7.500 m2-ko espazio bat libre uztea; horretarako, bere alderdiak hasita zituen gestioak Espainiako aurreko Gobernuarekin, baina Exekutibo zentrala aldatzean beharrezkoa da atzera ere prozesu guztiari hasieratik ekitea.

Halaber, harridura adierazi du lan hori Gobernu berriarekin egin ez izanagatik, baina, beste kontu batzuekin bezala, gobernu-taldeak beti erantzuten du gaia lantzen ari direla.

Beraz, beste behin ere Udalbatza honen onespenera dakarte bere garaian aho batez onartutako proposamen bat.

**Lamarain Cobo andreak** harridura adierazi du, izan ere, hitz egiten ari da Euskadiko Erkidegoaren Estatutuaz, 111/2013 proposamen ez legezkoaz, Estatuko Segurtasun Indarren egokitasunaz, edo Arma Interbentzioaren Bulegoa herrian jarraitzeaz, baina inork ez du galdetzen zergatik Euskal Herriak 23.000 polizia dituen biztanleko eta Europako batezbestekoa, aldiz, 6.000koa den; edo zergatik polizia espainiarrak edo frantsesak, Guardia Zibilak edo Ejerzituak hemen jarraitzen duten. Erantzuna erraza

El objeto de la moción es la de conseguir la liberación de un espacio de 7.500 m$^2$, para lo cual, su partido ya inició gestiones con el anterior Gobierno de España, pero al producirse el cambio del Ejecutivo central es necesario iniciar de nuevo el proceso.

Así mismo, muestra su sorpresa por el hecho de que esta labor no se haya realizado ya con el nuevo Gobierno, aunque, al igual que en otros asuntos, siempre se responde por parte del equipo de gobierno que se está trabajando en el tema.

Por tanto, una vez más presentan a la aprobación de este Pleno una propuesta que en su día ya fue ratificada por unanimidad.

La **Sra. Lamarain Cobo** muestra su sorpresa porque se hable de cuestiones tales como el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la proposición no de ley 111/2013, la adecuación de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado o el mantenimiento de la Oficina de Intervención de Armas, pero nadie se pregunte la razón por la que Euskal Herria cuenta con 23.000 efectivos policiales por habitante cuando la media europea es de 6.000, que las policías española y francesa, la Guardia Civil o el Ejército

da: Espainiak bere agindupean nahi gaitu eta horrela erakusten du; eta, aurka azalduz gero, Altsasuan gertatutakoari begiratzea baino ez dago.

continúen aquí. La respuesta es tan sencilla como que España nos quiere bajo su mando y lo demuestra así; y, en caso de oposición, no hay más que fijarse en lo sucedido en Alsasua.

Gai honi dagokionez, aitzakia moduan terrorismoaren aurkako borroka jartzen zen, baina berak galdetzen du ea zein den aitzakia hori gaur egun.

En relación con este asunto, se esgrimía como excusa la lucha contra el terrorismo pero se pregunta cuál es a día de hoy.

Euskal Herria Bildu udal taldeak mahai gainean jarri zuen gai hau joan den bilkura-saioan eta badirudi balio izan zuela denak horren inguruan lanean jartzeko: batzuek mozio bat aurkeztuz eta beste batzuek bilerak egiten ari direla esateko.

El grupo municipal de Euskal Herria Bildu puso sobre la mesa este tema en la pasada sesión plenaria y parece que sirvió para que todos se pusieran a trabajar en ello: unos presentando una moción y otros para afirmar que están celebrando reuniones.

Gogorarazi du, bere taldeak duela hiru urte aurkeztutako mozioa onartu zenean, ohartarazi zuela ibilbide motza izango zuela eta, horregatik, zalantza egiten duela epe motzera emaitzarik egongo ote den.

Recuerda que, cuando se aprobó la moción presentada por su grupo hace tres años, ya advirtieron que tendría poco recorrido y, por ello, duda de que existan resultados en un breve plazo de tiempo.

Hortaz, bere iritziz, planteamendu politikoak aldatu ezean, beste hiru urte edo gehiago pasatuko dira; izan ere, batzuek Espainiako Gobernua galtzeko aukeran dute jarrita jomuga eta ez diote hainbeste begiratzen Eibarri eta are gutxiago Euskal Herriari. Beste batzuek pentsatuko dute ez dela hain larria Arma Interbentzioak herrian jarraitzea.

Por tanto, en su opinión pasarán otros tres años o más a no ser que se modifiquen los planteamientos políticos, puesto que algunos tienen la vista puesta en la posible pérdida del Gobierno de España y no miran tanto por Eibar y mucho menos por Euskal Herria. Algunos otros considerarán que no es tan grave mantener la Intervención de Armas.

Baina bere taldeak argi eta garbi adierazi nahi du ez dutela nahi ez Eibarren ez Euskal Herrian polizia frantses edo espainiarrik, ez baitute inolako ekarpen positiborik egiten.

Pero, su grupo quiere expresar claramente que no desean en Eibar ni en Euskal Herria a las policías francesa y española ya que no aportan nada positivo.

Gauzak horrela, gaurko saioan bi mozio aurkezten dira gai honi buruzkoak, baina berriz ere dio udal organo honek eman zuela bere iritzia 2015eko urrian eta 2016ko abenduan, eta iragarri du, orduan egin zuten bezala, babestu egingo dutela Eibarko EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa.

Con todo ello, en el Pleno de hoy se presentan dos mociones sobre este tema, pero insiste en que este órgano municipal ya se pronunció en octubre de 2015 y en diciembre de 2016, y anuncia que, tal y como hicieron en aquel entonces, también apoyarán la moción presentada por el grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV.

Nolanahi ere, adierazi du gaiari buruzko planteamendu politikoak aldatzen ez diren bitartean egoerak berdin jarraituko duela; hortaz, gobernu-taldeari eskatzen dio data bat jartzeko dagokion Ministerioarekin gaiaz eztabaidatzeko. Bien bitartean, borrokan jarraituko dute Guardia Zibila Eibartik joateko.

No obstante, afirma que mientras no cambien los planteamientos políticos al respecto la situación continuará igual, por lo que demanda al equipo de gobierno que fije una fecha con el Ministerio correspondiente para negociar este asunto. Mientras tanto, seguirán luchando para que la Guardia Civil abandone Eibar.

**Aguirre Unceta andreak** azpimarratu du udal talde guztiak ados daudela hain erdian eta hain zabala den leku bat berreskuratzearekin, eta gobernu-taldeari eskatu dio egin behar diren gestioak egiteko hurrengo hauteskunde orokorrak izan aurretik, Espainiako Gobernua bere partidu berekoa delako.

La **Sra. Aguirre Unceta** recalca que todos los grupos municipales están de acuerdo en recuperar un espacio tan céntrico y amplio y solicita al equipo de gobierno que acelere las gestiones antes de las próximas elecciones generales puesto que el Gobierno de España pertenece a su mismo partido.

**Alkate-udalburu jaunak** uste du gai hau ez dela konpontzen mozioak aurkeztuz, badagoelako gaiari buruzko borondate-konpromiso bat. Halaber, Eibarko EAJ-PNV udal taldearen bozeramaleari barkamena eskatu dio Guardia Zibilaren kuartelari buruzko mozioa aurkezteko arrazoitzat izandako Gobernu aldaketa aipatu duenean barre egiteagatik.

El **Sr. Alcalde-Presidente** cree que este tema no se soluciona presentando mociones puesto que ya existe un compromiso de voluntades al respecto. Así mismo, pide disculpas al portavoz del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV por haberse reído cuando este último se refería al cambio de Gobierno producido como motivo para presentar una moción sobre el cuartel de la Guardia Civil.

Gogorarazi du joan den bilkura saioan erantzun ziola Euskal Herria Bildu udal taldeak egindako galderari, bai Gobernuaren ordezkariordearekin bai Gobernuaren ordezkariarekin izandako bilerak azalduz; bere ustez, kontu honetan hobe da diskrezioz jokatzea negoziazioak ahalbidetuko dituen gutxieneko oinarri bat lortzeko. Hortaz, iragarri du hau ez dela prozesu azkar bat izango.

Recuerda que en el pasado Pleno contestó a la pregunta formulada desde el grupo municipal de Euskal Herria Bildu detallando las reuniones que ha mantenido tanto con el Subdelegado del Gobierno como con el Delegado del Gobierno y entiende que en este asunto es mejor actuar con discreción para obtener una base mínima de acuerdo que permita desarrollar las negociaciones; por tanto, alerta que éste no será un proceso breve.

Orobat, bere taldearen ustez beharrezkoa da Arma Interbentzioak herrian jarraitzea eta, horretarako, beharrezkoa da Guardia Zibilak hemen segitzea, baina zehaztu egin beharko da nola gestionatzen den zerbitzua.

Igualmente, su grupo considera necesaria la continuidad de la Intervención de Armas y, para ello, es necesaria la permanencia de la Guardia Civil, aunque habrá que concretar cómo se gestiona el servicio.

Adierazi du baita ere aurreko Gobernuaren ordezkariarekin ez zela

También, manifiesta que con el anterior Delegado del Gobierno no fue

posible izan aurrerapausorik ematea eta, Gobernu-aldaketa dela-eta, elkarrizketak izan dituela haren ondorengoarekin. Aitortu du, halaber, seguru asko ez dela bilduko inongo ministrorekin, baina baduela zita bat urtarrilean Segurtasun Zuzendaritzan; dena den, zaila izango da akordio bat lortzea, zeina, nolanahi ere, baldintzatua egongo den.

posible ningún avance y, que a raíz del cambio de Gobierno, ha podido iniciar conversaciones con su sucesor. Así mismo, confiesa que probablemente no se reunirá con ningún Ministro pero sí tiene concertada una cita en enero en la Dirección de Seguridad, pero será difícil logar un acuerdo que, de todas formas, será condicionado.

Eskatzen du talde guztiak gauza izatea aurrera egiteko espektatiba faltsuak sortzeke, eta espero du hurrengo agintaldian oinarriak jartzea etorkizunean leku hori izan daitekeenari buruz, nahiz eta hori ezingo den maiatzerako zehaztu.

Apela a que todos los grupos sean capaces de avanzar firmemente sin crear falsas expectativas y desea que en el próximo mandato se sienten las bases de lo que en el futuro será ese espacio, aunque esto no será posible concretarlo para el mes de mayo.

Eibarko EAJ-PNV udal taldeko bozeramaleari informazioa eskatu dio gaiaz egindako gestioen inguruan, eta baikor azaldu da gure herriarentzat lor daitekeenaren inguruan, betiere gauzak aldez aurretik ondo zehaztuta.

Continúa su intervención solicitando al portavoz del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV información sobre las gestiones realizadas al respecto y muestra su optimismo por lo que pueda llegar a conseguirse para nuestra ciudad, siempre teniendo bien definido de antemano de qué se trata.

**Mendicute Rodríguez jaunak** aitortu du gai hau bere taldearen agenda politikoan dagoela eta gogorarazi du, dagokion bilkuraren aktan jasotzen denez, NANa ateratzeko bulego bat eskatuz mozio bat planteatu zenean, gobernu-

El **Sr. Mendicute Rodríguez** confiesa que este tema está en la agenda política de su grupo y recuerda que, tal y como consta en el acta del pleno correspondiente, cuando se planteó una moción solicitando una oficina para la

taldeak esan zuela hori ezinezkoa zela Polizia Nazionalaren komisaldegi bat izan gabe. Hain zuzen ere, mozio hura izan zen Diputatuen Kongresuan EAJ-PNV taldeak beste era bateko negoziazioei ekiteko erabili zuena.

expedición del D.N.I. y pasaporte, el equipo de gobierno replicó que ello no era posible sin contar con una comisaría de la Policía Nacional. Precisamente, fue esta moción la que el grupo de EAJ-PNV en el Congreso de los Diputados utilizó para emprender otro tipo de negociaciones.

**Alkate-udalburu jaunak** zehaztu du bere garaian esan zuela NANa eta pasaportea ateratzeko, beharrezkoa zela Polizia Nazionalaren agenteak edukitzea, baina ez komisaldegia. Halaber, Administrazio Zentraletik eman zitzaion informazioa jakinaraztera mugatu zen, hau da, bulego horiek komisaldegietan bakarrik egon zitezkeela. Geroago, aldatu egin zen irizpidea eta bulego horiek polizia-instalazioetatik kanpo jarri dira, eta aukera hori baliatuz haietako bat udal bulegoetan kokatu da, eta gogorarazi behar da proposamen horrek ez zuela udal talde guztien babesa jaso.

El **Sr. Alcalde-Presidente** puntualiza que en su momento afirmó que para la expedición del D.N.I. y pasaporte era necesario contar con agentes del Cuerpo Nacional de Policía pero no con una comisaría. Así mismo, se limitó a trasladar que desde la Administración Central se comunicó que esas oficinas únicamente se ubicaban en comisarías. Posteriormente, se modificó el criterio y se ha procedido a una implantación de dichas oficinas fuera de las instalaciones policiales, oportunidad que se aprovechó para ubicar una de ellas en dependencias municipales, propuesta que no contó con el respaldo de todos los grupos municipales.

Laburbilduz, errepikatu du ez direla behar hainbeste mozio, baizik eta solaskideak izan eta proposatutako helburua lortzeko lan egin isilean, ezer inposatzeko asmorik izan gabe.

En resumen, insiste en que no son necesarias tantas mociones sino contar con interlocutores y trabajar para conseguir el objetivo propuesto sin hacer ruido y sin pretender imponer nada.

Azkenik, iragarri du helburuarekin ados egon arren bere taldeak mozioaren

Por último, anuncia que su grupo votará en contra de la moción a pesar de

aurkako botoa emango duela, uste baitu aurkeztu duten mozio alternatiboa egokiagoa dela. Hala, baldin eta Eibarko EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa onartuko balitz, erretiratu egingo lukete mozio alternatiboa eta PSE-EE udal taldeak bat egingo luke harekin.

estar de acuerdo con el sentido de la misma, pero entiende que la moción alternativa que han presentado es más correcta. Así, en el caso de que se aprobase la presentada por el grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV retirarían la moción alternativa y el grupo municipal del PSE-EE se adheriría a la misma.

Eibarko EAJ-PNV udal taldeak Guardia Zibilak okupatutako lekua libre uzteari buruzko mozioa bozkatuta, Udal Osoko bilkurak honako mozio hau onartzea erabaki du aldeko hamaika botorekin (Euskal Herria Bildu, EAJ-PNV eta Irabazi, eta aurkako bederatzi botorekin (PSE-EE-PSOE):

Sometida a votación la moción presentada por el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV, relativa a la liberación del espacio ocupado por la Guardia Civil, el Pleno de la Corporación, con once votos a favor (Euskal Herria Bildu, EAJ-PNV e Irabazi) y nueve en contra (PSE-EE-PSOE), acuerda aprobar la siguiente Moción:

“ARRAZOIAK:

3/1979 Lege Organikoak, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuarenak bere 7. artikuluan ezartzen du zein diren Erkidegoko Poliziaren eta Estatuko Segurtasun Indarren eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoan. Azken horien jarduerak aurreikuspenak gainditu ditu; izan ere, indarkeria-egoera atzean geratu da dagoeneko Euskal Herrian. Eibarren, Guardia Zibilaren postua hirigunean dago kokatua, Egigurentarren kaleko 3, 5 eta 7

“JUSTIFICACIÓN:

Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco, establece en su artículo 7º las competencias de la Policía Autónoma y de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado en la Comunidad Autónoma Vasca. La actividad de ésas últimas ha sobrepasado las previsiones, motivada por una situación de violencia ya superado en el País Vasco. En Eibar, el puesto de la Guardia Civil se encuentra situado en el casco urbano, en los

zenbakietan. Eibarko Udalak aurreikusita dauka Hirigintza Plangintza berrikustea, eta, orain da unea aipatutako orubearen etorkizuna aztertzeko, izan ere, 2015eko udalbatzaren akordio bat dago, aho batez onartua, espazio hori liberatzeko, eta akordio hori oraindik ez da gauzatu. Horregatik guztiagatik eta Estatuan gobernu-aldaketa egon denez, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako mozio hau proposatzen dio Udalbatzari:

números 3º, 5º y 7º de la calle Egigurentarren. El Ayuntamiento de Eibar tiene previsto revisar el Planeamiento Urbanístico, y es también momento de estudiar la situación futura del solar referido, sobre el cual ya existe un acuerdo municipal de Pleno en 2015, aprobado por unanimidad, para la liberación de este espacio, acuerdo que no se ha materializado. Por todo ello, y tras haberse producido un cambio en el Gobierno del Estado, el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV propone la siguiente moción al Pleno.

MOZIOA

MOCIÓN

Eibarko Udalbatzak berretsi egiten ditu 2015eko urriaren 26ko akordioak:

El Pleno del Ayuntamiento de Eibar se reafirma en sus acuerdos plenarios de 26 de octubre de 2015:

1.- Eibarko Udalbatzak Estatuko Administrazio zentralari eskatzen dio egokitu ditzala haren segurtasun-indarrak bere eskumen-esparrura, Gernikako Autonomiaren Estatutuan eta indarraldiko ordenamendu juridikoan ezarritakoarekin bat, eta Eusko Legebiltzarraren 111/2013 legez besteko proposamena betez. Testuinguru horretan, Eibarko Udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailari eskatzen dio Euskadiko Erkidegoan

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Eibar insta a la Administración central del Estado que lleve a efecto la adecuación de sus fuerzas y cuerpos de seguridad a su estricto ámbito competencial, conforme a lo establecido en el Estatuto de Autonomía de Gernika y en el ordenamiento jurídico vigente, y en cumplimiento de la Proposición no de Ley 111/2013 del Parlamento Vasco. En ese contexto, el Pleno del Ayuntamiento de

Guardia Zibila erretiratzeari buruzko plangintza landu beharra azpimarratzen segitzeko.

Eibar insta al Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco a seguir mostrando la necesidad de abordar la planificación sobre el repliegue de la Guardia Civil en los municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.- Eibarko Udalbatzak Espainiako Gobernuko Barne Ministerioari eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatzen die Segurtasun Batzarraren barruan lan egiteko, Estatuko segurtasun-indarrak erretiratzeko irizpideak finkatzeko, benetako segurtasun-beharrei erantzunez eta Gernikako Autonomia Estatutuak emandako eskumenen arabera; halaber, erretiratze horren ondorioz, espazio bat liberatuko da, gaur egun Guardia Zibilaren postuak okupatzen duena Eibarko Egigurentarren 3, 5 eta 7 zenbakietan.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Eibar insta al Ministerio del Interior del Gobierno de España y al Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco a trabajar en el seno de la Junta de Seguridad de cara a fijar los criterios de repliegue de las fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado, de conformidad con las necesidades reales de seguridad y las competencias atribuidas por el Estatuto de Autonomía de Gernika, así como acordar que ese repliegue suponga la liberación del espacio actualmente ocupado por el puesto de la Guardia Civil en la calle Egigurentarren 3º, 5º y 7º de Eibar.

3.- Aurreko atala betez, Eibarko Udalbatzak zera eskatzen du: Guardia Zibila Eibartik joan arren, mantendu dadila Armen Esku-hartzeko Bulegoa, Eibar eta eskualdearentzat zerbitzu ezinbestekoa delako. Horren haritik, Eibarko Udalak borondatea erakusten du, gainerako erakundeekin batera, zerbitzu honen kokapen posibleak aztertzeko.

3.- En cumplimiento con el anterior punto, el Pleno del Ayuntamiento de Eibar reivindica que, aunque se dé el repliegue efectivo de la Guardia Civil en Eibar, se mantenga la Oficina de Intervención de Armas, como servicio irrenunciable para la ciudadanía de Eibar y su entorno. En ese sentido, el Ayuntamiento de Eibar muestra su voluntad de estudiar junto a

las demás instituciones las posibles ubicaciones para este servicio.

4.- Eibarko Udalak udalbatzaren erabaki honen berri emango die Eusko Jaurlaritzari, Diputatuen Kongresuari, Senatuari, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, Espainiako Gobernuko Barne Ministerioari eta Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiari."

